

MUNGIAKO UDALA

***2018KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA ETA AIPATUTAKO
DATAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION
EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAREN KONTUA, ANALISI
TXOSTEN BEREZIAREKIN BATERA***

AURKIBIDEA

2018KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI ETA AIPATUTAKO DATAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAREN KONTUARI BURUZKO ANALISI TXOSTEN BEREZIA	2
--	---

1 AZTERTUTAKO ONDARE KONTUAK	6
1.1 Balantzea (ikuskatu gabea)	6
1.2 Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua (ikuskatu gabea).....	7
2 AURKEZPEN OINARRIAK.....	9
2.1 Sarrera.....	9
2.2 Aplikatzekoa den araudia.....	9
3 AZALPEN ATALAK	11
3.0 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako kontabilitate-esparru arautzaile berria	11
3.1 Finantzaz bestelako ibilgetua	11
3.2 Finantza-ibilgetua eta diruzaintza	13
3.3 Kobratzeko eta ordaintzeko kontuak	15
3.4 Ondare garbia.....	15
3.5 Gorabeherak.....	16

ERANSKINA:

Ikuskatu gabeko ondare-kontuei buruzko analisisian aplikatutako prozedurak..	17
--	----

MUNGIAKO UDALA

***2018KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI ETA
AIPATUTAKO DATAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI
DAGOKION EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAREN
KONTUARI BURUZKO ANALISI TXOSTEN BEREZIA***

2018KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEARI ETA AIPATUTAKO DATAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAREN KONTUARI BURUZKO ANALISI TXOSTEN BEREZIA

MUNGIAKO UDALEKO Kontu-hartzailletza Nagusiari:

I. SARRERA

MUNGIAKO UDALAREN 2018ko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua analizatu ditugu (1. atala eta eranskina). Ondare-kontu horiek 2018ko ekitaldiari dagokion MUNGIAKO UDALAREN kontu orokorrean sartzen dira.

Toki-erakundeko alkate-lehendakariak du ardurak kontuak emateko, aplikatzekoa zaion finantza-informazioaren esparruarekin bat etorriz (2.1 atalean xehatzen da) eta, zehazki, kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera. Era berean, kontabilitate-informazioaren arduraduna da; hau da, egiazko informazioa ematearena eta urteko kontuek ondarearen, finantza-egoeraren, ekonomia- eta ondare-emaizaren eta aurrekontua gauzatzearen irudia islatzearena.

II. LANAREN HELBURUA ETA IRISMENA

Analisi bat erakundeko pertsonalari galderak egitera eta kontabilitate-informazioari buruzko prozedura analitiko jakin batzuk (txosten honen eranskinean zehazten direnak) aplikatzera mugatzen da. Analisi batek hedapen murrizta eta kontu-ikuskapen batena baino txikiagoa duenez gero, ez dugu adieraziko erantsitako 2018ko abenduaren 31ko balantzeari buruzko iritzirik, ezta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion ekonomia- eta ondare-emaizaren kontuari buruzkorik ere (1. atala).

2016ko urtarrilaren 1ean, indarrean jarri zen *139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena*.

Kontabilitate-esparru berria indarrean jartzeak berekin ekarri zuen zenbait kontabilitate-doikuntza egitea 2015eko ekitaldiaren itxierako saldoen eta 2016ko ekitaldiaren irekierakoan artean.

Gure analisiak 2018ko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua baino ez ditu aztergai.

III.- ONDORIOAK

Gure analisiaren emaitza gisa ez da agerian utzi erantsitako 2018ko abenduaren 31ko balantzean edo data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontuan (1. atala) aldaketa garrantzitsuak sartzeko beharra —hurrengo paragrafoetan deskribatuko ditugunak izan ezik—, kontu horiek indarrean dagoen araudian bildutako Kontabilitate Printzipio Publikoei jarraiki aurkeztarren. Prozedura gehigarriak aplikatu edo kontu-ikuskapen bat egin izan bagenu, beste aldaketa batzuk sartzeko beharra agerian utz genezakeen:

- Aztertu diren erantsitako kontuetako salbuespenen eraginez (1. atala). Salbuespen horiek 2018ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren Likidazioari buruzko *Ikuskapen-txostena* atalean deskribatzen dira. Aipatutako txostena 2019ko uztailaren 30ean aurkeztu zen.
- Udalak ezarritako barne-kontrolako prozedurarik ezaren ondorioz (finantzaz bestelako ibilgetuaren gehitzei, ateratzei eta amortizaziorako zuzkidurei dagozkien erregistroen egokitzapena bermatzeko asmoz), ezinezkoa da erantsita doan 2018ko abenduaren 31ko balantzean sartuta dauden ibilgetuaren saldoen eta horien amortizazio metatuaren arrazoizkotasuna egiaztatzea (3.1 atala).
- Erantsita doan 2018ko abenduaren 31ko balantzeko “Epe luzerako finantza-inbertsioak” epigrafearen saldoan, 987.628 euro daude jasota. Zenbateko hori “MUNGIALDEKO BEHARGINTZA, SL” eta “MUNGIA BEHARREAN, SA” sozietateetako partaidetzen kontabilitate-balio garbiari dagokio. Finantza-inbertsio horiek erantsitako balantzearen analisiaren datan erregistratu beharko ziratekeen, “Epe luzerako finantza-inbertsioak taldeko, talde anitzeko eta elkartutako erakundeetan” epigrafearen barruan.
- Udalak ez darama ekitaldi honetako eta aurreko ekitaldietako ondasunak finantzatu dituzten jasotako dirulaguntzen kontrolik. Horiek erantsita doan balantzeko “Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak” epigrafean erregistratu beharko ziratekeen (3.4 atala). Gertakari horren ondorioz, ezin dugu iritzirik eman epigrafe horretan 2018ko abenduaren 31n erregistratutako saldoaren arrazoizkotasunaren inguruan, eta, halaber, ezin dugu zehaztu erantsita doazen data horretako ondareko egoera-orrietako “Sortutako ondarea” eta “Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak” epigrafeen gaineko eragina.
- Gure lanean zehar, Kontabilitate Printzipio Publikoen arabera, erantsita doazen Udalaren 2018ko abenduaren 31ko balantzean eta egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontuan (biak erantsita daude)

bildu beharko liratekeen beste doikuntza eta birsailkapen batzuk agerian geratu dira. Doikuntza eta birsailkapen horien mota eta erantsitako balantzearen atal desberdinetan duten eragina jarraian adierazten da:

Kontzeptua	Atala	Aktiboa	Ondare garbia	
		Zordunak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	2018ko emaitza
- 2018ko abenduaren 31n sortutako sarrerak, zabor-bilketaren eta estolderiaren 2018ko laugarren lauhilekoari dagokion erroldagatik, 2018ko ekitaldian aitortu gabeak		348.787	-	348.787
- 2018ko aurrekontuan erregistratutako sarrerak, zabor-bilketaren eta estolderiaren erroldaren ondorioz 2017ko laugarren lauhilekoari dagozkionak		-	318.097	(318.097)
GUZTIRA		348.787	318.097	30.690

Betean Auditoría, SLP

José Ignacio Miguel Salvador

2019ko uztailaren 30a

MUNGIAKO UDALA

***2018KO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA ETA AIPATUTAKO
DATAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOKION
EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZA (IKUSKATU GABEAK)***

1. AZTERTUTAKO ONDARE KONTUAK
1.1 BALANTZEA (IKUSKATU GABEA)

-Eurotan-

AKTIBOA	18.12.31	17.12.31	PASIBOA	18.12.31	17.12.31
A) AKTIBO EZ KORRONTEA	70.513.046,56	70.606.893,85	A) ONDARE GARBIA	88.434.673,40	85745604,79
I) Ibilgetu ukiezina	92.956,52	94.559,22	I) Ondarea	102.746.249,32	102.746.249,32
<i>Beste ibilgetu ukiezina</i>	92.956,52	94.559,22	II) Sortutako ondarea	(14.311.575,92)	(17.000.644,53)
II) Ibilgetu materiala	69.673.909,37	69.493.901,96	<i>Aurreko ekitaldietako emaitzak</i>	(17.001.393,42)	(16.807.418,88)
<i>Lursailak</i>	13.492.187,63	13.492.187,63	<i>Ekitaldiko emaitza</i>	2.689.817,50	(193.225,65)
<i>Eraikuntzak</i>	34.913.682,71	34.591.709,52	B) PASIBO EZ KORRONTEA	-	19.092,78
<i>Azpiegiturak</i>	19.410.680,35	20.220.976,77	II) Epe luzerako zorrak	-	19.092,78
<i>Bestelako ibilgetu materiala</i>	(374.441,90)	(253.962,44)	<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>	-	19.092,78
<i>Uneko ibilgetu materiala eta aurrerakinak</i>	2.231.800,58	1.442.990,48	C) PASIBO KORRONTEA	15.374.217,31	16.688.988,25
IV) Lurzoruaren ondare publikoa	(272.252,00)	-	II) Epe laburrerako zorrak	1.252.197,57	1.762.889,65
<i>Lursailak</i>	(272.252,00)	-	<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>	19.092,78	318.371,44
VI) Epe luzerako finantza inbertsioak	1.018.432,67	1.018.432,67	<i>Bestelako zorrak</i>	1.233.104,79	1.444.518,21
<i>Finantza-inbertsioak ondarean</i>	987.627,77	987.627,77	IV) Hartzekodunak eta epe laburrera ordaintzeko bestelako kontuak	14.122.019,74	14.926.098,60
<i>Bestelako finantza-inbertsioak</i>	30.804,90	30.804,90	<i>Kudeaketa-eragiketen ondoriozko hartzekodunak</i>	1.788.990,97	2.607.685,38
B) AKTIBO KORRONTEA	33.295.844,15	31.846.791,97	<i>Ordaintzeko bestelako kontuak</i>	12.040.550,01	12.038.795,46
III) Zordunak eta epe laburrera kobratzeko bestelako kontuak	11.602.245,70	11.490.070,19	<i>Administrazio publikoak</i>	292.478,76	279.617,76
<i>Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak</i>	196.692,98	95.115,28			
<i>Kobratzeko bestelako kontuak</i>	11.403.899,23	11.391.733,32			
<i>Administrazio publikoak</i>	1.653,49	3.221,59			
V) Epe laburrerako finantza-inbertsioak	951.773,52	956.696,39			
<i>Kredituak eta zorra adierazten duten bestelako baloreak</i>	951.773,52	956.696,39			
VII) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	20.741.824,93	19.400.025,39			
<i>Diruzaintza</i>	20.741.824,93	19.400.025,39			
AKTIBOA GUZTIRA	103.808.890,71	102.453.685,82	PASIBOA GUZTIRA	103.808.890,71	102.453.685,82

1.2 EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAREN KONTUA (IKUSKATU GABEA)

-Eurotan-

EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZA	18.12.31	17.12.31
1. Zerga- eta hirigintza-sarrerak	8.529.818,40	8.294.102,97
a) Zergak	5.485.439,81	5.442.357,02
b) Tasak	3.044.378,59	2.851.745,95
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	12.402.674,66	11.576.542,51
a) Ekitaldikoak	12.402.674,66	11.576.542,51
a.1) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzak	1.830,00	60.189,25
a.2) Transferentziak	12.400.844,66	11.516.353,26
3. Salmentak eta zerbitzugintza	13.712,90	27.845,18
a) Salmentak	13.712,90	27.845,18
6. Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	432.781,86	717.351,43
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	21.378.987,82	20.615.842,09
8. Langile-gastuak	(6.969.528,58)	(6.505.275,45)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	(5.256.671,33)	(4.985.897,71)
b) Gizarte-kargak	(1.712.857,25)	(1.519.377,74)
9. Emandako dirulaguntzak eta transferentziak	(1.408.944,97)	(2.459.939,10)
11. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(7.922.304,68)	(7.859.801,41)
a) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak	(7.922.027,67)	(7.859.123,87)
b) Zergak	(277,01)	(677,54)
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(2.125.463,01)	(2.771.189,68)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(18.426.241,24)	(19.596.205,64)
I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	2.952.746,58	1.019.636,45
14. Bestelako kontu-sail ez-arruntak	4.462,50	3.941,51
a) Sarrerak	4.559,52	3.941,51
b) Gastuak	(97,02)	-
II. ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZA	2.957.209,08	1.023.577,96
15. Finantza-sarrerak	3.116,05	4.973,12
b) Zorra adierazten duten baloreenak, kredituenak eta bestelako finantza-inbertsioenak	3.116,05	4.973,12
b.2) Bestelakoak	3.116,05	4.973,12
16. Finantza-gastuak	(561,31)	(284,87)
b) Bestelakoak	(561,31)	(284,87)
20. Balio-narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(316.872,26)	(1.227.706,86)
b) Bestelakoak	(316.872,26)	(1.227.706,86)
21. Finantza-eragiketak finantzatzeko dirulaguntzak	46.925,94	6.215,00
III. FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	(267.391,58)	(1.216.803,61)
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	2.689.817,50	(193.225,65)
* Doikuntzak aurreko ekitaldiko emaitzaren kontuan	-	-
AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA	2.689.817,50	(193.225,65)

MUNGIAKO UDALA

***IKUSKATU GABEKO 2018KO ABENDUAREN 31KO
BALANTZEARI ETA DATA HORRETAN AMAITUTAKO
URTEKO EKITALDIARI DAGOKION EKONOMIA ETA
ONDARE EMAITZAREN KONTUARI BURUZKO AZALPEN
ATALAK, ETA BESTELAKO OHARRAK***

2. AURKEZPEN OINARRIAK

2.1 SARRERA

Mungia Mungialdeko eskualdean dago, Bizkaiko lurralde historikoan, eta zuzenbidezko 17.817 biztanle dauzka, 2018ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

2018ko ekitaldiari dagokion Mungiako Udalaren kontu orokorra osatzen dute *Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 62.* artikulua eskatutako Udalaren beraren eta horren mendeko “MUNGIALDEKO BEHARGINTZA, SL” eta “MUNGIA BEHARREAN, SA” sozietate publikoen kontuek eta aurrekontu eta ondareko egoera-orriek.

2018ko ekitaldiari dagokion Mungiako Udalaren Aurrekontu Orokorrean barne hartzen diren erantsitako ondare-kontuak (1. atala) Udalaren kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira.

Erakunde horiei aplikatzekoak diren finantza- eta aurrekontu-informazioaren esparru arauemailea aipatutako foru-arauan bertan eta foru-dekretu honetan ezarritakoa da: *139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena.*

Aipatutako kontu orokorra 2019ko uztailaren 24an egindako bilkuran onartu du Udaltzako.

2.2 APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2018ko ekitaldian, Bizkaiko Toki Sektore Publikoari buruzko Araudiak zuzendu du Udala:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Toki Ogasunak arautzen dituena.

- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Araudia onartzen duena.
- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 2/2004 Errege Dekretu Legegilea, martxoaren 5koa, Toki Ogasunei buruzko Legearen testu batagina onartzen duena.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, 5/2001 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren osagarria, erreformatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu batagina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, 18/2001 Lege Orokorra, abenduaren 12koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzkoa, garatzeko araudia onartzen duena, lege hori toki-erakundeei aplikatzearen.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, Bizkaiko toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena.

3 AZALPEN ATALAK

3.0 URTARRILAREN 1ETIK AURRERAKO KONTABILITATE ESPARRU ARAUTZAILE BERRIA

Toki-erakundeek, 2016ko ekitalditik aurrera, lehen aipatutako *139/2015 Foru Dekretuan* xedatutakoa aplikatu behar dute. Horretan erregimen iragankor bat ezartzen da, aipatutako ekitaldiko kontabilitate-irekiera eta 2015eko ekitaldi-itxierarekiko konparazioa errazteko.

Era berean, adierazten du irekiera-idazpena egin ondoren beharrezko idazpen-doikuntzak egin behar direla; hartara, 2016ko urtarrilaren 1ean erregistratuta gera daitezten adierazitako plan orokorrak aitortzea eskatzen duen aktibo eta pasibo guztiak eta, alderantziz, baja eman dakien baimenduta ez daudenei.

3.1- FINANTZAZ BESTELAKO IBILGETUA

Balantzearen epigrafeka sailkatuta, hona hemen finantzaz bestelako ibilgetua osatzen duten saldoen laburpena:

-Eurotan-		
Finantzaz bestelako ibilgetua	18.12.31	17.12.31
Ibilgetu ukiezina, garbia	92.957	94.559
Ibilgetu materiala, garbia	69.673.909	69.493.902
Lurzoruaren ondare publikoa	(272.252)	-
Finantzaz bestelako ibilgetua guztira	69.494.614	69.588.461

Orduan eskuratuta edo lehenago eraikita zegoen ibilgetua balantzera eransteko xedez, 1997ko ekitaldiaren itxierako udal-ibilgetuaren inbentarioa eta balorazioa egiteko enkargua eman zuen Udalak.

2018ko ekitaldiaren itxierako gure lana egitean, ez digute bidali itxiera-data horretako ondasunen inbentarioa.

2018ko kontu orokorraren memorian agertzen denez, erregularizatzeko daude ibilgetuko multzoaren kontuak —haren kontrol iraunkorra ahalbidetuko duen sistema informatikoa ezartzeko zain—, ondasunen eta eskubideen inbentarioaren bidez. Horrek bidea emango

du eskuratzeko, besterentzeko eta baja emateko eragiketen erregistro sistematikoa egiteko, baita inbentarioko eta kontabilitateko azpisistemetan amortizazioen eta balorazio-zuzenketen erregistro sistematikoa egiteko ere.

Udala, bere ibilgetu materiala amortizatzeko urteko zuzkidura erregistratzeko, GEMA programatik lortutako zenbatekoetan oinarritzen da.

Lehen adierazitakoaren ondorioz, “Bestelako ibilgetu materiala” kontuak, “Ibilgetu materiala” epigrafearen barruan, 374.442 euroko saldo negatiboa du 2018ko abenduaren 31n.

Gainera, 2018ko irailaren 14an, Udalak bi partzela saldu ditu. Bien baterako salmenta-prezioa 272.252 euro izan da, BEZa kanpo. Baja hori salmenta-prezioaren arabera erregistratu da “Lurzoruaren ondare publikoa” epigrafean, eta ezinezkoa izan da kalkulatzeko eragiketa horrek izango lukeen eragina 2018ko abenduaren 31ko ekonomia-eta ondare-emaitzaren kontuan. Izan ere, ez da ezagutzen bi partzela horiek udal-ibilgetuan zuten balioa.

Bestalde, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera kontabilitate-plan berria indarrean jartzearekin batera, berrikuntza formal nagusizat, aipatzekoa da ibilgetutik desagertu egiten dela “Erabilera orokorrerako emandako azpiegitura, ondasunak eta ondarea” epigrafea eta berri bat sartzen dela: “Higiezinetakoko inbertsioak”. Horren asmoa da horiek errentak, gainbalioak edo biak lortzeko (eta ez, ordea, erabiltzeko) dauden aktibo ez-korronteak biltzea.

2018ko ekitaldiaren itxieran, jasota dago gutxienik Olalde Beresia kalean dagoen 3 B zenbakiko lokala eta beste hiru lokal ere alokatuta daude, eta alokairu horren ondorioz Udalak diru-sarrerak jasotzen dituela. Aktibo horiek “Higiezinetakoko inbertsioak” epigrafean erregistratuta agertuko beharko liriateke. Hala ere, ez da ezagutzen lokal horiek udal-inbentarioan duten balioa.

Azken gertakari hori zuzentzeak eragina izango luke balantzean. Izan ere, inbentario horren emaitzazko balioan “Ibilgetu materiala” kapituluaren saldoa murriztuko litzateke, eta “Higiezinetakoko inbertsioak” epigrafearena gehitu.

2016ko ekitalditik hona, ez da inolako gehitzerik erregistratu “Lurzoruaren ondare publikoa” epigrafean. Ez dakigu 2018ko ekitaldiaren itxieraren adierazitako epigrafeari zein zenbateko egotzi beharko litzaiokeen mota horretako ondasunen ondorioz.

Ez dakigu, ezta ere, zein izango litzatekeen aurreko ekitaldietan adierazitako epigrafean birsailkatzeko dauden mota horretako gauzatutako ondasunei dagokien zenbatekoa.

2018an, “Ibilgetu materiala” epigrafeko gehitze garbiak 2.298.780 euro izan dira. Gehitze horiek, funtsean, lotuta daude kiroldegiko inbertsioarekin, bi etxebizitza erostearekin eta udalerriko auzo batzuk urbanizatu eta hobetzearekin.

Bizkaiko toki-erakundeetako Kontabilitate Plan Orokorrean jasota dauden balorazio-arauen arabera, Udalak ez du aurkeztu balio-zuzenketa izendunik aktibo ez-korrontearen elementuen balio-narriadurengatik, ezta lagatako gozamenaren ondoriozko balio-galerengatik ere.

2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden aseguru-polizek 9.619.201 euroko estaldura hartzen dute, gutxi gorabehera, eraikin eta instalazioetako sute-arriskurako (edukitzailea gehi edukia).

Aurreko paragrafoen arabera, *honako hau gomendatzen dugu:*

⇒ *Ondasunen Udal Inbentarioa ekitaldi bakoitzaren itxieran eguneratzea.*

⇒ *Ondasunen udal-inbentarioan ondasun eta eskubide guztiak sartzeari, horien izaera edo eskuratzeko era dena dela ere. “Ibilgetu” gisa erregistratzea kontzeptuzko kontabilitate-esparru berriaren arabera aktibo izateko baldintza betetzen duten ondasun guztiak.*

⇒ *Balantzeko “Ibilgetua” kapituluko kontabilitate-kontuei dagozkien saldoekin osatutako eta eguneratutako udal-inbentarioaren emaitzazko zenbatekoak berdinkatzea.*

3.2 FINANTZA IBILGETUA ETA DIRUZAINNTZA

Udalak hainbat merkataritza-sozietatetan dituen partaidetzei esleitutako balioen laburpena honako hau da:

-Eurotan-

Partaidetzak	Partaidetza	18.12.31	17.12.31	KBG	Hornidura
Mungia Beharrea, SA	100%	984.428	984.428	1.316.887	-
Mungialdeko Behargintza, SL	100%	3.200	3.200	3.200	-
Partaidetzak guztira		987.628	987.628	1.320.087	-

2018ko ekitaldiari dagozkion merkataritza-sozietate horien urteko kontuak ez dira ikuskatu.

2016tik aurrera, finantza-inbertsioak bereiz aurkeztu behar dira Udalarri lotutako erakundeen (taldea, talde anitza eta elkartuak) eta harekin inolako loturarik ez dutenen artean.

Udala “MUNGIALDEKO BEHARGINTZA, SL” eta “MUNGIA BEHARREAN, SA” sozietateek dituzten akzioen % 100aren jabea da, eta horien kontabilitate-balio garbia erregistratu du (987.628 euro) “Epe luzerako finantza-inbertsioak” epigrafean. Finantza-inbertsio horiek erantsitako balantzearen analisiaren datan erregistratu beharko ziratekeen “2501. Epe luzerako partaidetzak taldeko erakundetan, merkataritza-sozietateetan” kontuaren barruan, “Epe luzerako finantza-inbertsioak taldeko, talde anitzeko eta elkartutako erakundetan” epigrafean.

Azkenik, balio negoziagarrietarako Bizkaiko toki-erakundeen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean barne hartutako balorazio-arauei jarraituz, horiek eroste-prezioaren arabera baloratu behar dira, eta bidezko hornidura zuzkitu behar da, betiere eroste-prezioaren eta kontabilizatutako finantza-ibilgetuari zentzuzko balorazio-irizpideak aplikatzearen emaitzazko zenbatekoaren arteko diferentziaren arabera. Ildo horretatik, Udalak ez du balio-galeraren ondoriozko inolako hornidurarik zuzkitu behar izan.

Azkenik, erantsitako 2018ko abenduaren 31ko balantzearen “Diruzaintza” kontuaren saldoan, diruzaintzako gerakinak ipintzeko finantza-kontuetan kokatutako funts likidoen dagozkien 9.160.000 euro barne hartzen dira.

3.3 KOBRAZKEKO ETA ORDAINTZEKO KONTUAK

Udalaren iritzian, gauzatzeko zailtzat edo gauzaezintzat har daitezke guztira 3.682.240 euro. Zenbateko hori, osorik, bat dator urtebetetik gorako antzinasuna duten zorren guztizko zenbatekoarekin. Aipatutako zenbatekoa “Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak” kontuan erregistratu da, erantsita doan 2018ko abenduaren 31ko balantzearen barruan.

Zenbateko horretan, honako kopuru hauek barne hartzen dira:

- Gauzatzeko dauden zenbateko kobratzeko zailak edo kobraezinak, transferentzia arruntetan (itxitako ekitaldietako 4. kapitulua): 756.014 euro.
- Gauzatzeko dagoen zenbateko kobratzeko zaila edo kobraezina, kapital-transferentzietan (itxitako ekitaldietako 7. kapitulua): 9.674 euro.
- Gauzatzeko dagoen zenbateko kobratzeko zaila edo kobraezina, higiezin salmentetan (itxitako ekitaldietako 6. kapitulua): 913.319 euro.

Bestalde, Udalak, “Kobratzeko dauden bestelako kontuak” kontuan, “Zordunak eta epe laburrera kobratzeko bestelako kontuak” epigrafearen barruan, 11.300.068 euroko zenbatekoa erregistratu du. Zenbateko hori dagokie Mungiako SI-3 Belako sektoreko birpartzelazioaren, urbanizazioaren, loturen eta gastu aurreratuen kontzeptupean kobratzeko dauden saldoei. Horri dagokionez, “Ordaintzeko dauden bestelako kontuak” kontuan, “Hartzekodunak eta epe laburrera ordaintzeko bestelako kontuak” epigrafearen barruan, 11.919.255 euroko zenbatekoa erregistratu da. Zenbateko hori dagokie Mungiako SI-3 Belako sektoreko urbanizazioaren, desjabetzearen eta loturen eta, baita ere, SI-2 Trobika sektorearen eta UE-29 Garraketa esparruaren kontzeptupean kobratzeko dauden saldoei. Ez dugu lortu euskarri-dokumentaziorik zenbateko horiek eta berorien esperotako konpentsazio-data ziurtatzeko dokumentaziorik.

3.4 ONDARE GARBIA

Balantzearen kapitulu hau osatzen duten kontuen saldoen xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

KONTZEPTUA	18.12.31	17.12.31
Ondarea	102.746.249	102.746.249
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(17.001.393)	(16.807.419)
Ekitaldiko emaitza	2.689.817	(193.225)
Guztira	88.434.673	85.745.604

Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak

Udalak ez darama ekitaldi honetan eta aurreko ekitaldietan jaso diren dirulaguntzekin finantzatutako ondasunen kontrolik. Horiek erantsita doan balantzeko “Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak” epigrafean erregistratu beharko ziratekeen. Gertakari horren ondorioz, ezin dugu doitu epigrafe horretan 2018ko abenduaren 31n erregistratuta egon beharko litzatekeen saldoaren zenbatekoa, eta, halaber, ezin dugu zehaztu erantsita doazen data balantzeko “Sortutako ondarea” eta “Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak” epigrafeen gaineko eragina.

3.5 GORABEHERAK

Gaur egun, ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat dago, Monte Berriaga higiezin-komplexuko jabekideen erkidegoak Udalaren aurka aurkeztutakoa. 10.044.228 euro (1.220.408 + 8.823.820) erreklamatzeko ditu. Txosten honen datan, ez da epairik eman horren inguruan.

ERANSKINA:

IKUSKATU GABEKO ONDARE KONTUEI BURUZKO ANALISIAN APLIKATUTAKO PROZEDURAK

2018ko abenduaren 31ko balantzeari eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko galdu-irabazien kontuari buruzko azterketan, Erakundeak langileei egindako galderak eta erabilitako prozedura analitikoak, funtsean, hauek dira:

- Erakundeak aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei buruzko galderak.
- Erakundeak transakzioak erregistratu, sailkatu eta laburtzeko erabilitako prozedurei buruzko galderak.
- Apartekoak diruditen zerrenda eta kontu-sail indibidualak identifikatzeko diseinatutako prozedura analitikoak.
- Balantzearen eta ekonomia- eta ondare-emaizaren kontuaren irakurketa; eskura dagoen informazioan oinarrituta, horiek Kontabilitate Printzipio Publikoen arabera prestatu diren ala ez jakiteko.